

PUNTUAZIOA, GRAMATIKAGAI¹

Juan Carlos Odriozola

0. SARRERA

Gaur eguneko hizkuntzalaritzan, perpaus mailako syntaxizko funtzioez gain, testu mailako funtzioak ere izaten dira ikerlariaren ikusmiran. Lehenengo ikuspegitik, hizkuntzaren aukerak eta murriztapenak aztertzen dira eta ikerkuntza horren ondorioz, * ikurraren bidez ematen da hizkuntza jakin baten gramatika inoiz egingo ez liratekeen adierazpideen berri. Testu mailako funtzioei begira, aldiz, hizkuntzaren erabilera bera dago aztergai (Larringan 1996: 5); ikuspegi horren pean, gerta daiteke esapide jakin bat hizkuntzaren baitan eskuragarri izatea, hau da, hiztun ideal batek igorri ahal izatea, baina, hala ere, testuinguru jakin batean egokia edo ezegokia den finkatu beharko da, gainera; ezegokitasunak # ikurraren bidez adierazteko ohitura dago.

¹ Madrilgo Complutense Unibertsitateak 1998.ean antolatu zuen I Simposio Internacional de Análisis del Discurso delakoan, *La puntuación y la entonación como desambiguadores en las estructuras limítrofes entre la yuxtaposición, la coordinación y la subordinación* izenburu luzeko komunikazio bat aurkeztu nuen. Lan hori Euskal Herriko Unibertsitateko UPV 033.310-HA022/96 egitasmoaren ikerlerroaren barruan zegoen. Haren dirulaguntzari esker eta 033.310-HA081/97 egitasmoaren dirulaguntzari esker egin nuen neurri batean komunikazioa. Lana gaztelaniaren eta euskararen arteko erkaketan oinarriturik zegoen, eta bertan esparruaren ikuspegi orokor bat ematen saiatu nintzen, bi hizkuntzen alborakuntza, juntadura eta menderakuntza batera kontuan hartuz. Oraingo honetan, euskarari begira soilik aritu naiz eta, gainera, alde batera utzi dut menderakuntzarekin zerikusia duen guztia, euskarazko alborakuntzaren eta juntaduraren azpiesparruetan eta bereziki esangura-harremannen ikuspegitik gehiago sakontzeko asmoz. Hemen, ezinbestez eskertu behar dut era berean Euskal Herriko Unibertsitateko UPV 033.310-HB 194/98 egitasmoaren dirulaguntza, bai eta Igone Zabalak eta Elixabete Perezek lehenengo idatziaren inguruan emandako iruzkinak ere.

Perpausen artean egon daitezkeen harremanei dagokienez, bestalde, bost sail onartu beharko genituzke, ohiko gramatikek esandakoa bere osotasunean bildu nahi badugu behintzat: perpaus beregainak, perpaus alboratuak, esangura-harremana adierazten duen osagai baten bidez loturikoak, esangura-harremana eta sintaxi-harremana gauzatzen dituen osagai baten bidez juntaturikoak eta nagusi/mendeko harremana dutenak. Lan honetan urrats txiki bat eman nahi dugu esparru honen azterketan, ezaugarri sorta birekiko hurbilketa bat eginez. Lehenik, prosodia-ezaugarri jakin batzuk izango ditugu aztergai: bi perpausetatik lehenengoaren bukaerako doinu mota eta perpausen arteko isilunearen luzera; ezaugarri hauek puntuazioaren erabilerarekiko harreman estuetan jarriko dugu lan honetan zehar. Bigarrenik, perpausen arteko (esangura-)harremanak gauzatzen dituzten osagaien arteko pilaketak izango ditugu hizpide. Ezaugarri batzuek eta besteek testu mailako eta perpaus mailako funtzioen arteko muga betean dihardutela ikusiko dugu hemen.

Lana, beraz, honelaxe antolatuko dugu: lehenengo sail batean, esangura-harremana adierazten duen osagairik ez duten perpausak aztertuko ditugu. Bigarrenean, esangura-harremana adierazten duen osagaia duten perpausak izango ditugu ikusmiran. Hirugarrenean, esangura-harremana eta sintaxi-harremana gauzatzen dituen osagaia duten perpausak miazteari ekingo diogu. Lan honetatik at utziko dugu, bestalde, menderakuntzarekiko zerikusia izan dezakeen guztia.

1. LOKAILURIK GABEKO ALBORAKUNTZA

Elkarren aldamenean eta esangura-harremana adierazten duen tarteko osagairik gabe dauden perpausak aztertzeke unean, bibliografian ez dago erabateko adostasunik. Hemen, egoera horretan dauden perpaus guztien artean ez dugu bereizketarik egingo eta denak alboratuak direla esango dugu: testu mailako ikerketak beti aurkituko du haien artean harreman bat edo beste (ikus Makazaga 1996, Zabala 1996a), eta perpaus mailako ikerketak beregaintzat hartuko ditu kasu orotan. Ikus bedi (1-5)ko sorta.

- (1) Gaua da, kotxean sartzen naiz²
- (2) Gaua da, ilun dago

² 1997.ean Anari izeneko abeslariak plazaraturiko abesti batetik hartu dugu adibide hau. Bi perpausen arteko koma ez zegoen diskoak zekarren idatzizko testuan.

- (3) Oso argia da Miren, asko daki (EGLU-III, 1.44)³
 (4) Beranduegi da, etxera noa (EGLU-III, 1.45)
 (5) Isilik dago, ezer ez daki (EGLU-III, 1.20b)

(1-2)koetan, nekez asma daiteke emendiozko harreman ilun batetik harantzagoko esangurarik. (3-5)eko bigarren kokaguneko perpausetan, ordea, Euskaltzaindiak garbi finkatu dituen emendiozko harreman zehatz bat, ondorioa eta kausa antzeman daitezke hurrenez hurren. Hala ere, iradoki bezala, esangura-harreman garbirik ez duten (1-2)ko adierazpideen perpausak, esangura-harreman nabaria duten (3-4)ko horiek bezainbesteko harremana izango dute elkarrekin, testu mailako harreman bat alegia. Lan honetan, edonola, ohiko esangura-harremanak dituzten perpausaz soilik arituko gara.

Bestalde, gaztelaniari buruzko liburuetan esan denaren arabera (Alarcos Llorach, 1994: 316), prosodia-ezaugarri desberdinak ezar daitezke horrelako perpausen artean: lehenengo perpausaren bukaeran goranzko ala beheranzko doinua, eta bi perpausen arteko isilune laburragoa ala luzeagoa. Bistan da ezaugarri multzo bi horiek hurrenez hurren koma eta puntuaren bidez islatu ohi direla eta, berez, euskal hizkuntzalaritza aplikatuko zenbait lanetan ere horrelaxe azaldu da (Garzia 1998: 37, 142). Aurrerantzean goranzko doinua eta isilune laburra direlako horiei koma-ezaugarri esango diegu, edo besterik gabe, koma. Beheranzko doinua eta isilune luzea, bestalde, puntu-ezaugarriak izango dira gure lan honetan, edo osterantzean, puntua. Horrela, bestelakorik esan ezean, puntuazio-ikur jakin bietako bakoitzak zuzen-zuzenean prosodia-ezaugarrien multzoetako bat adierazten duela onartuko dugu hemen.

Bi puntuazio-ikurrok, 11. eta 12. sailean aztertuko ditugu hurrenez hurren. 13. sailean, bestalde, esparru honen baitan kontuan hartu ez diren bi puntuak edo bi puntuaren ezaugarriak aztertuko ditugu: komarena baino isilune luzeagoa eta puntuarena baino goragoko doinua.

1.1. Puntua⁴

Tartean puntu soila dagoelarik, zenbait hizkuntz mailatan behintzat, ondo samar uler daitezke ohiko esangura-harreman gehienak: aurkaritza (6),

³ EGLU-III eta EGLU-IV, hurrenez hurren Euskaltzaindia (1990) eta Euskaltzaindia (1994) argitalpenei dagozkie. Lehenengo zenbakiak liburukiaren atala adierazten du eta bigarrenak adibidearena. Zenbaitetan, Euskaltzaindiaren adibidean oinarritzeko aukera izango dugu, baina lanaren argudio-ildoari begira zerbait aldatu behar izan dugu adierazpidean; horrela-koetan, *oin.* laburdura jarri dugu.

⁴ Puntu eta koma delako puntuazio ikurra lan honetan puntuaren baliokidetzat hartuko dugu eta aurrerantzean ez da ezertarako ere aipatuko.

argudioa (7a) zein ondorioztapena (7b), kausa (8a) zein ondorioa (8b)⁵, eta hemen bereiziko ditugun bost emendio motetatik lau (9).⁶

- (6) Hiru bider jo nuen txirrina. Ez zuen inortxok ere erantzun (EGLU-III, 4.18 oin.)
- (7) a Heldu da. Hor dago bere motxila berdea
b Hor dago bere motxila berdea. Heldu da
- (8) a Saldu egin du. Ez zuen ezertarako balio (EGLU-III, 6.92 oin.)
b Ez zuen ezertarako balio. Saldu egin du. (EGLU-III, 6.92 oin.)
- (9) a Letretako ikasketak egin dituk. Zientzietako ikasketak egin dituk. Ez al hago burutik eginda?
b Praka beltzak zeramatzan jantzita. Txamarra grisa aukeratu zuen egun horretarako
c Joseba ez zen bakarrik egon. Pedro eta Karmele joan ziren
d Mutil diruzalea dugu. Mendekuzalea da

Puntu soileko adierazpide honek badu muga bat ohiko esanguren ikuspegitik bederen: kontzesioa (10), hemen bereiziko ditugun bi hautakari-harremanak (11)⁷ eta emendiozko bosgarren harremana (12)⁸, nekez uler daitezke

⁵ Odrizolari (1999) jarraiki, delako kausa hori gertaera jakin bat zuzen sortarazten duena da, eta argudioa, aldiz, buru-jarduera baten bidez zerbait ondorioztatzera garamatzana: (8a)ko *ez zuen ezertarako balio* eta (7a)ko *hor dago bere motxila berdea* hurrenez hurren. Gure hemengo terminologian, kausari eta argudioari, hurrenez hurren ondorioa eta ondorioztapena dagozkie: (8b)ko *saldu egin du* eta (7b)ko *heldu da*. Villasantekin (1979: 162) bat eginez, bestetik, kontzesioa, gertatu dena ez bezalakoa ondorioztatzera garamatzana da. Aurkaritza, bestalde, kontzesioak ondorioztatzera garamatzana ez bezalako ustekabe hori da: (6)ko *ez zuen inortxok ere erantzun*. Kausa/ondorio, argudio/ondorioztapen eta kontzesio/aurkaritza direlako hiru ardatz hauei begira, bi zehaztasun egin behar ditugu. Alde batetik, lan honetan zehar bigarren perpausak daraman esanguraz arituko gara, hau da, (7a)koan argudioa dugu eta (7b)koan ondorioztapena. Gainera, zenbaitetan bi hitz-hurrenkerak dira zilegi, baina beste zenbaitetan ez. (13a)koa adibidez, hobeto legoke alderantzizko hurrenkera jarrita: gure ikuspegiari, argudioaren adierazpena ondorioztapena baino egokiagoa dugu, koma soila erabilia bederen. Bigarrenik, harreman hauek ondo zedarritzatzeko ahalmena oso lotuta doa hizkuntzatik kanpo hiztunak edo entzuleak munduari buruz duen jakintzarekin.

⁶ Emendiozko harreman hauen ereduak, hurrenez hurren, *halaber* (9a), *bestalde* (9b), *behintzat* (9c), eta *gainera* (9d) lokailuek eramango luketenak dira. *Ere* enklitikoaren erdua, esanguraren aldetik behintzat, *halaber* bezalakoa dela onartuko dugu.

⁷ Lehenengo motan, bi aukera ematen dira etorkizunari begira. Bigarrenean, aldiz, lehenengo perpausan eman den bidea erabilia ekidin nahi den zerbait adierazten da. Lan honetan *ostervantzean* erabiliko dugu bien ereduzko lokailu gisa.

⁸ *Bestela* lokailuaren emendiozko eredukoaz ari gara. Emendiozko bost harremanen berri zehatza izateko jo bedi Euskaltzaindiaren (1990: 33-79) lanera.

bide horretatik, edota horrelako adierazpideak harrigarri edo ezegokiak gertatzen dira bederen.

- (10) #Ez zuen inortxok ere erantzun. Hiru bider jo nuen txirrina (EGLU-III, 4.18 oin.)
- (11) a #Eguzkia bada, hondartzara joango gara. Etxean geldituko gara (EGLU-III, 3.5 oin.)
- b #Joan korrika. Harrapatuko zaitut (EGLU-IV, 2.6 oin.)
- (12) #Mutil diruzalea dugu. Jatorra da

1.2. Koma

Koma erabilita⁹, 11. sailean ikusitako aurkaritza (6), argudioa (7a), kausa (8b), eta emendiozko lau harremanak (9), puntuarekin batera bezain ondo edo lagunarteko mailan puntuarekin batera baino are hobeto molda daitezke gure iritziz. (7b)ko ondorioztapena eta (8b)ko ondorioa, aldiz, ulergaitzagoak dira koma baten bidez antolatuz (13a-b).

- (13) a #Hor dago bere motxila berdea, heldu da
- b #Ez zuen ezertako balio, saldu egin du (EGLU-III, 6.92 oin.)

11. sailean ustez adierazi nahi diren kontzesioak (10), bi hautakari-harremanek (11) eta emendiozko bosgarren harremanak (12), ulergaitz diraute koma jarrita ere.

Hizkuntz mailen arabera, ordea¹⁰, koma eta puntuaren arteko hautaketa desberdinak egiten dira. Hau iradokia da jadanik hizkuntzalaritza aplikatuko esparruan euskara teknikoaz egin izan diren lan batzuetan (Makazaga 1996: 56). Izan ere, aurrean ontzat zein kaskartzat harturiko guztiak, nabarmenki kaskarragoak dira hizkuntz maila jaso-berezituetan: ikusi bost emendio motak (14), bi hautakari -harremanak (15), kausa zein ondorioa (16), argudioa zein ondorioztapena (17), eta aurkaritza zein kontzesioa (18).

⁹ Alde batera utziko ditugu esparru honetan gertatzen diren ezabaketa guztien kontu ezin interesgarriagoa. Areago, lan honetatik kanpo geratuko dira era berean erabilera nagusian ezinbestez ezabaketa daramaten kideak ere (*ez ezik* edo *baizik* kasu). Ikus halaber Euskaltzaindiaren lokailuetatik oso urrun egon ez arren nahiko desberdin jokatzten duten *hau da*, *hots*, *alegia*, *hain zuzen*, *adibidez* eta *batez ere* bezalakoak, Zabalak (1996b) testuan iruzkinak sartzeko duten funtzioaren ikuspegitik aztertu dituenak.

¹⁰ Juntaduraren eta menderakuntzaren garapen diakronikoa, behintzat, hizkuntza jakin bat kultur tresna gisa hartuz doan irmotasunari erantsirik doa. Ikusi gaztelaniarako Gili Gaya (1961: 269) eta Real Academia Española (1973: 502), eta euskararako Makazaga (1996: 76) eta Garzia (1998: 561).

- (14) a #Aldehido talde bat dauka, zetona talde bat dauka
 b #Metodo zehatza dugu, Biokimikan erabiltzen da
 c #Metodo ona da, Kimika Organikoan oso datu zehatzak atera dira
 d #Metodo garestia dugu, egokia da
 e #Metodo zehatza da, oso prozedura erraza behar du
- (15) a #Entzima-kontzentrazio nahiko jarri behar da, erreakzioa ez da gertatzen
 b #Erreakzioa gertatzen bada, aurrera egingo dugu gure saioan, bertan behera utzi beharko dugu
- (16) a #Ez du lotura bikoitzik, 6 H atomo dauka
 b #6 H atomo dauka, ez du lotura bikoitzik
- (17) a #Apurto egin da, tenperatura altuegia zen
 b #Tenperatura altuegia zen, apurto egin da
- (18) a #Naturan bizi diren baldintzapean berberak errepikatzen saiatu gara, hil egin dira
 b #Hil egin dira, naturan bizi diren baldintzapean berberak errepikatzen saiatu gara

Hala ere, idatzizko (14-18) hauek bi hausnarketa mota egitera garamatza-te. Alde batetik, adibidez, ahozko informabideetan, koma horiei legozkiokkeen goranzko doinuak entzun daitezke; horrelakoetan, nolabaiteko ezegokitasun (arin)a ikusi beharko litzateke hiztunaren hizkuntz ahalmenean. Beste alde batetik, idatzizko testuari dagokionez, gerta liteke hiztunak ondo ahoskatuko lukeena idatziz okerreko puntuazioa erabili izana soil-soilik; horrela balitz ere, testu mota jakin batekiko ezegokitasuna dagoela onar liteke (bestelako testu mota batzuetan egokia izango bailitzateke koma). Edozein hipotesiri eusten diogularik ere, # ikurra dugu kontuaren adierazle onena: egoera jakin batean egin beharko ez litzatekeen edo egingo ez litzatekeena, eta ez perpaus mailako arauetan erabateko debekua duena eta * ikurraren bidez adierazten dena.

Beste alde batetik, hizkuntz maila arruntagoetan egokitzen jo ditugun perpausen arteko koma hori nolabaiteko juntagailu hutsa dela esan du Euskaltzaindiak (1994: 12). Izan ere, koma-ezaugarriek esangura-harremanen artean egiten bide dituzten bereizkuntzak hipotesi horren alde egon litezke: komak erraz adieraz ditzake esangura batzuk (aurkaritza, argudioa, kausa eta emendio mota batzuk), baina ez bestelako guztiak (beste emendio mota batzuk, ondorioztapena, ondorioa, hautakari-harremanak eta kontzesioa). Puntuazioak adierazten dituen prosodia-ezaugarriek testu edo perpaus mailan funtzio bat izan lezaketelako hipotesia plazaratu delarik, ekin diezaiogun koma baino are esangarriagoak izan litezkeen bi puntuen aztertzeari.

1.3. Bi puntuak

Gaztelaniaren Akademiaren hitzetan (1973: 147), argudioa adierazten duen perpausaren aurrean bi puntuak jar daitezke. Berez, puntuazio ikur hau, puntuaren ordeztu erabili liteke 11. saileko (7a)ko argudioa eta (8a)ko kausa ere adierazteko unean, baina areago, bi puntuak nabarmen hobetuko lituzkete koma daramaten (13a)ko ondorioztapenaren eta (13b)ko ondorioaren adierazpenak. 11. sail horretako (6)ko aurkaritzak, bestetik, aukera modura onartuz ditzake bi puntuak. Kontzesioa, emendiozko harremanak eta hautakari-harremanak ez dira eskuragarriak era honetara.

1. sail osoa laburtuz, bada, elkarren aldamenean eta esangura-harremana gauzatzen duen tarteko osagaririk gabe dauden perpaus guztiak alboratuak direla esan dugu: bi perpaus bakun. Hala ere, testuaren azterketak harreman mota asko aurki ditzake horrelakoen artean. Guk geuk, esangura-harremanak hautatu ditugu aztergai gisa, bide batez puntu-, koma- eta bi puntuaren ezaugarriak izan dezaketen eragina aztertzeko. Puntuak, hasiera batean behintzat, esangura-harreman ugari onartuz ditzake testuinguruaren arabera. Komak, ordea, aurkaritza, argudioa, kausa eta zenbait emendio mota baizik ez du ondo bideratzen. Areago, hizkuntzaren maila jaso-berezituetan komak adierazten dituen prosodia-ezaugarriak ez dira inolako esangura-harreman garbiarekin egokiro moldatzen. Bi puntuak oso ondo onartzen dituzte argudio- eta kausa-harremanak; bestetik, nahiko ondo moldatzen dira aurkaritzarekin, eta koma baino egokiagoak bide dira ondorioztapena eta ondorioa adierazteko.

2. LOKAILUEN BIDEZKO ALBORAKUNTZA

2.1. Testu mailako funtzioak eta perpaus mailako funtzioak

Euskaltzaindiak (1990) lokailu deitu dituen kideen lan sakon eta zabala eskaini digu, bigarren alborakuntza mota bat bide den honen inguruan. Edonola, aurreko 1. sailean gertatu denaren antzera, perpaus (elkartu)aren joseraz izan gabe, testuaren ikerlanean arituko gara honelakoetan ere, eta, beraz, dela bi perpausen artean, dela bigarren perpausaren txertaturik, lokailuek ez dute perpaus mailan inolako harremanik gauzatzen.

Geure zereginari ekin baino lehen, ordea, lokailuen ikuspegi honetatik zenbait hizkuntzalarik eskaini dituzten zehaztasunen berri eman behar dugu ezinbestez.

a) 1. sailean esan bezala, elkarren aldamenean dauden perpaus alboratuak, errepikapenak, elipsiak, pronominalizazioa eta abarreko baliabideez loturik azal daitezke.

b) Horietaz gain, Larringanek (1995) testua antolatzeko erabil daitezkeen kideen esparru izugarri zabala aztertu du sakontasunez. Hona hemen kide guztion gaitetiko laburbilpena:

b1) Egileak idatziaren formalismoaren izenpean sarturiko baliabide batzuk aztertu ditu: parentesiak edo komatxoak, bibliografi aipua etab. Azpimarratu beharrekoa da Larringanek inter, meta edo intratestualtzat hartu dituela baliabideok, eta haien artean koma, puntua eta bi puntuak ez dituela aztertu. Horrelako lan zabal eta sakonaren itzalpean bada, zilegi zaigu koma-, puntu- eta bi puntuen ezaugarriak inter, meta edo intratestualak izan gabe testuaren beraren osagai direla pentsatzea.

b2) Lokuziotzat harturiko batzuk ere aztertu ditu Larringanek: *egia esan, zentzu horretan, dirudienez...*

b3) Larringanen (195: 47) hitzetan, bere eskuko testu-antolatzaileak direnak ditugu aipagai era berean. Hauen artean azpisailekapenak egiteko unean, Makazagaren (1996: 54) laguntza dugu:

b31) Alde batetik, lan honetan aztertuko ditugunak daude: Euskaltzaindiak (1990) lokailu izenaren pean azterturikoak (*gainera, osterantzean, aldiz, beraz, izan ere...*). Lan honetan, *lokailu* terminoa horietarako bakarrik erabiliko dugu.

b32) Bestetik, esapideak ditugu. Ohiko lokailuen eta esapideen arteko muga ez da oso garbia. Hona egin dezakegun gauza bakarra: Makazagarekin bat eginez, Euskaltzaindiak aipaturiko guztiak behar bezain ihartuak daudela pentsatu eta *gainera* bezalako hitz bakarrak zein *hala ere* bezalakoak lokailu direla esan. Euskaltzaindiak aipatu ez dituen asko, oso arruntak izan arren, esapidetzat hartuko ditugu: *ildo beretik, horren ondorioz. Horrela, horregatik* bezalako hitz bakarrak ere esapidetzat hartu ditu Makazagak, nonbait Euskaltzaindiaren terminologiarekiko guk dugun begirune berari eutsiz. Egia esan, Larringanen lokuzioak ere hurbil samar daude esparru honetatik.

b33) Bukatzeko, testu mailako funtzioa har dezaketen juntagailuak ditugu, gure 3.3 sailean aztertzeke.

c) Iradokia dugu esapide eta lokailuetan ihartze edo aldaketa prozesu bat suma daitekeela. Zenbait ikerlarik (Larringan 1995: 295, Makazaga 1996: 54) zuzen-zuzenean esan dute horrelakoak perpaus mailako funtzio bakar bat izatetik bigarren aukera modura edo aukera bakar modura testu mailako funtzio

bat izatera heldu direla¹¹. Ideia honek oso babes ona du lokailuen morfologi jatorri gardenean (*gain* + adlatiboa, *aldi /berri* + instrumentala, *ordu* + inesiboa,...). Horrela, *lokailu* izenpean jaso diren kide batzuek, jatorrizkotzat jo daitekeen perpaus mailako funtzioa (19a) eta lokailu gisan aurkitu zaien testu mailako funtzioa (19b) dituzte aukeran.

- (19) a Gitarraren zatia ondo grabatu duk. Ahotsa berriz doitu behar duk
 b Gitarraren zatia ondo grabatu duk. Ahotsa **berriz**, ez duk ondo doitu

Lokailu izenpean jaso diren beste batzuek, ordea, lokailu delako testu mailako funtzio hori baizik ez dute gaur egun, jatorrizko funtzioa erraz susma daitekeen arren: *behintzat*, *adibidez*, *behin* eta *-tzat* prolatiboaz osaturik egon arren, gaur egun bederen nekez erabil daiteke izenki-predikatu gisa, prolatiboa eskatzen duen aditz batekin (*jo*, *hartu*, *eduki*...), *behin* hori ez baita *-tzat* hartu ohi duten izen edo izenondoan kategoriakoa.

Ez ditugu hemen jasoko Euskaltzaindiak (1990), Larringanek (1995) eta Makazagak (1998) emandako zehaztasun diakroniko eta diasistematiko guztiak, baina badugu azpimarratzeko zenbait kontu:

c1) Jatorrizko perpaus mailako funtzioa, oro har aditzaren modifikatzaile da: (17a)ko *berriz* posposizio-sintagma horrek, *adibidez*, *doitu behar duk* adizkia modifikatzen du.

c2) Jatorrizko funtzioa betetzeko ahalmena galdua (*behintzat* kasu) ala galdu gabe (*berriz*, *esaterako*), testu mailako funtzio bat betetzera heldu dira, baina kontuan izan behar da azken funtzio hau betetzen dutenean, funtzio horrekin batera jatorrizkoa ez den perpaus mailako funtzio bat ere betetzen dutela:

c21) *Behintzat* edo *ere* bezalako kide emendiozkoak (20) eta *berriz* bezalako kide aurkaritzakoak (21), aurrean doan kidearekiko enklitikoak dira eta,

¹¹ Larringanek azterturiko batzuetan oso garbi dago perpausaren barruko (jatorrizko) funtzio bat: ikus bitez zehaztasunez azterturiko *nagusiki* ("nabarmentzaileak": 107), *lehenbizi* ("lerrozko integratze markatzaileak": 141), *bitz gutxitan* ("birformulatzaileak": 245), *-(r)en iritziz* (atribuziorakoak: 274), *agian* ("modalizatzaileak": 276) edo *oraingoan* ("narrazio-antolatzaileak": 278). Areago, Larringanek berak onartu du *izan ere* bezalako lokailu ezagun batean zenbaitetan ezin bereiz daitekeela hain erraz lokailuaren eta bestelakoaren artean. Ikus berak aurkituriko adibide hau:

(i) Prozesio honen hastapenenetatik irudi hau gizon berak interpretatu du; lan gogorra da, *izan ere*, latigoa eskuan duela Jesus egurtu, iraindu eta ziztukatu egiten bait du

izan ere, kide horri dagokion zehaztasuna baino ematen ez dutela onartuko dugu hemen hitz errazetan. Horrela, besarkadura txikiko kideak direla esango dugu, nonbait onartu behar zaion perpaus mailako funtzioa edo gunea finkatzerakoan.¹²

- (20) a Miren eta Maddalen afaltzera joan ziren. Peru ere haiekin joan zen (EGLU-III 2.18)
 b Ez zara gaizki aterako. Gauza berri batzuk **behintzat**, ezagutuko dituzu
- (21) Goizean paseatzera irten naiz. Arratsaldean, **berriz**, lanean geratu naiz (EGLU-III 4.18)

c4) *Halaber, bestalde, bestela eta gainera* bezalako kide emendiozkoek, *osterantzean* bezalako kide hautakariak, *aitzitik* bezalako kide aurkaritzakoek, *beraz* bezalako kide ondoriozko eta ondorioztapenezkoek eta *izan ere* bezalako kide kausazko eta argudiozkoek, perpaus osoa besarkatzen dutela dirudi: besarkadura handiko kideak direla esan daiteke. Bestela esanda, perpaus mailako modifikatzaileak dira nonbait.

Lan honetan, bada, ez ditugu azken ikerlari hauen emariak alde batera utziko eta gogoan izango dugu une oro testu mailako funtzioez ari garenean mota askotako testu-antolatzaileak ditugula. Hala ere, Euskaltzaindiak *lokailu* deituriko testu-antolatzaileak baizik ez ditugu erabiliko gure lanean. Horrelakoetan, testu mailako funtzio horiekin batera, besarkadura txikiko edo besarkadura handiko perpaus mailako funtzioak ikusiko ditugu. Edonola, azpimarratu beharrekoa da lokailuek eta oro har testu-antolatzaileek esku hartzen duten esparru hauetan oraindik ere sintaxi-harremanik gabeko perpaus alboratuak ditugula.

21. azpisailean puntuaren ezaugarriak aztertuko ditugu egoera arrunt modura, baina koma ere ikusmiran izango dugu 22. sailean. 23. sailean, berriz, bi puntuen eragina aztertuko da. 24. sailean, azkenik, lokailuen arteko pilaketek ematen dituzten ondorioak aztertuko ditugu.

¹² Ikus bedi *behintzat* edo *ere* bezalako lokailuek erabilera bakarra dutela: testu mailako funtzio hori eta perpaus mailako beste funtzio hori (besarkadura txikikoa) biltzen dituen (18a-b). *Berriz* bezalakoek, ordea, bi erabilera dute: ustez jatorrizkoa dena (19a) eta testu eta perpaus mailako funtzioak biltzen dituen (19b). Kide hauen guztion testu mailako funtzioa, bestalde, mintzagai indartzea da nonbait. c4) sailean aipatuko direnen kasuan, bestalde, ustez jatorrizkoa zen funtzioa eskuragarri dago gaurko euskararen baitan ere, eta oro har, *berriz* bezalakoek bi erabilerak azal daitezke.

2.1. Puntua

Lokailudun alboratuen artean puntua jarri ohi da.

- (22) a Ez du balio orain harengana joan nadin. Akiturik nago eta oso berandu da. **Gainera**, euria ari du (EGLU-III, 2.119)
- b Erreakzioa gertatzen bada, aurrera egingo dugu saioan. **Osterantzean**, bertan behera utzi beharko dugu
- c Hiru bider jo nuen txirrina. **Hala ere**, ez zuen inortxok ere erantzun (EGLU-III, 4.18 oin.)
- d Heldu da. **Izan ere**, hor dago bere motxila
- e Saldu du. **Izan ere**, ez zuen ezertarako balio (EGLU-III, 6.92 oin.)
- f Hor dago bere motxila berdea. **Beraz**, heldu da
- g Ez zuen ezertarako balio. **Beraz**, saldu egin du (EGLU-III, 6.92 oin.)

Azpimarratzekoa da kontzesioa ezin adieraz daitekeela lokailuen bidez.

2.2. Koma

Lokailurik gabeko alboratuek bezala, lokailudunek ere ez dute erabat debekaturik koma, baina azpimarratzekoa da Euskaltzaindiak ematen dituen (literatur) adibide gehienak puntu baten bidez antolaturik daudela¹³. Koma eta lokailua daramaten alboratu hauek lokailugabeak baino are desbideratuagoak direla dirudi, testu jaso-berezituetan behintzat¹⁴. Bestalde, ez dago kontzesio-lokailurik.

- (23) a #Aldehido talde bat dauka, **halaber**, zetona talde bat dauka
- b #Metodo zehatza dugu, **bestalde**, Biokimikan erabiltzen da
- c #Metodo ona da, Kimika Organikoan, **behintzat**, oso datu zehatzak atera dira
- d #Metodo garestia dugu, **bestalde**, egokia da
- e #Metodo zehatza da, **gainera**, oso prozedura erraza behar du
- f #Entzima-kontzentrazio nahiko jarri behar da, **osterantzean**, erreakzioa ez da gertatzen

¹³ Elixabete Perezek elkarriketa batean adierazi didanaren arabera, oso kontuan hartzekoa den Mitxelenaren idatzietan nekez aurki daiteke horrelakoak koma batekin batera.

¹⁴ Lokailua bi perpausen artean egon gabe bigarren perpausuan nonbait txertatzen bada, baliabidea are okerragoa da gure aburuz.

- g #Erreakzioa gertatzen bada, aurrera egingo dugu gure saioan, **osterantzean** bertan behera utzi beharko dugu
- h #Ez du lotura bikoitzik, **izan ere**, 6 H atomo dauka
- i #Apurtu egin da, **izan ere**, temperatura altuegia zen
- j #6H atomo dauka, **beraz**, ez du lotura bikoitzik
- k #Tenperatura altuegia zen, **beraz**, apurtu egin da
- l #Naturan bizi diren baldintzapen berberak errepikatzen saiatu gara, **hala ere**, hil egin dira

Bestalde, Euskaltzaindiak (1990) lokailutzat hartu duen *zeren* kausazkoa koma baten atzetik azaldu ohi da.

- (24) Dohatsu dira presuna emeak eta mansoak, **zeren** halakoek lurra gozatuko dute (EGLU-III, 6.14)

2.3. Bi puntuak

Ikusia dugu bi puntuei dagozkien ezaugarriek bideragarri egiten dutela koma-ezaugarrien bidez nekez egin litekeen edo maila jaso-berezituetan nekez itxura litezkeen ondorio, ondorioztapen eta aurkaritza. Lokailuen esparuan, berriz, ikusia dugu koma-ezaugarriak oso egokiak ez direla, edonolako esangura igorri nahi delarik ere. Bi puntuen ezaugarriek, ordea, ondorio ezin hobekak ematen dituzte kausa/ondorio (25c-e) eta argudio/ondorioztapen (25b-d) ardatzetan, eta aurkaritzako (25a) kasu batzuetan ere. Kausa edota argudioa adierazten duen *zeren* ordea, bideraezina da (25f-g).

- (25) a Naturan bizi diren baldintzapen berberak errepikatzen saiatu gara: **hala ere**, hil egin dira
- b #Batzuk hil egin dira: beste batzuek **aldiz**, bizirik diraute
 - b Ez du lotura bikoitzik: **izan ere**, 6 H atomo dauka
 - c Apurtu egin da: **izan ere**, temperatura altuegia zen
 - d 6H atomo dauka: **beraz**, ez du lotura bikoitzik
 - e Tenperatura altuegia zen: **beraz**, apurtu egin da
 - f #Ez du lotura bikoitzik: **zeren** 6 H atomo dauka
 - g #Apurtu egin da: **zeren** tenperatura altuegia zen

Emendiozko harremanak (26a) eta lehenengo hautakari-harremana (26b) oro har nekez gauza daitezke era honetara.

- (26) a #Zetona talde bat aurkitu diogu: **halaber**, alkohol talde bat dauka muturreko karbonoan
- b #Erreakzioa gertatzen bada, aurrera egingo dugu gure saioan: **osterantzean**, bertan behera utzi beharko dugu

Azpirarratzekoa hautakari-harremanen arteko bigarren mota oso ondo moldatzen dela bi puntuekin

- (27) Entzima-kontzentrazioa nahiko bada, erreakzioa gertatzen da: **osterantzean**, erreakzioa ez da gertatzen

Gure ustez, aurkaritza mota hori eta bigarren hautakari mota hau bateragarriak dira nolabaiteko kausa edo argudioarekin, edo agian beraiek daramate horrelako kutsuetako bat. Horregatik izango lirateke eskuragarriak kausa/ondorio eta argudio/ondorioztapen ardatzak nagusi diren esparru honetan.

Laburbil ditzagun, bada, 21-23 azpisail hauek. Lokailu baten bidez antolaturik dauden perpausak ere alboratuztat jo ditugu: azken finean lokailurik ez duten alboratuek bezala, ez dute perpaus mailako funtzio baten bidezko loturarik edo bestela esanda, ez dute goragoko perpaus elkaturik eratzen. Edonola, lokailuaren bidez agerian gelditzen da lokailurik gabekoetan sumatu besterik egiten ez zen esangura-harremana. Hala ere, nabarmendu beharrekoa da hautakari-harremanen adierazpenak lokailua behar duela ezinbestez. Lokailudun alboratuek puntuak adierazten dituen prosodia-ezaugarriak hartzen dituzte nagusiki. Komari dagozkion ezaugarriak nekez bidera daitezke, maila jaso-berezituetan ari garelarik behintzat. Oso azpirarragarria da bi puntuak adierazten dituzten ezaugarriak oso ondo moldatzen direla lokailu jakin batzuekin: kausa/ondorio eta argudio/ondorioztapen ardatzak, aurkaritza, eta bigarren hautakari mota. Esan beharrekoa da, hala ere, lehenengo hautakari motak nekez onartzen duela puntuazio-ikur hori.

2.4. Lokailuen pilaketak

Euskaltzaindiaren (1990) arabera, lokailuak zenbaitetan ezin pila daitezke bi perpausen artean, baina beste zenbaitetan pilaketak ez du inolako oztoporik. *Zeren* kausazkoak ere onartzen ditu hautakariak bere eskuinaldean.

- (28) a Autoan eramango zaitut, **zeren gainera**, zure etxe ondotik pasatu beharra dut (EGLU-III, 0.22c)
 b Ez eman inori, **zeren, bestela**, gabe geldituko zara (EGLU-III, 0.22b)

Larringanek (1995), bestalde, testu-antolatzaileen arteko zenbait pilaketa aurkitu ditu bere 114 testuko hustuketan. Guk geuk, hizkuntz ahalmen propioan oinarriturik eta lantxo honetan eredu modura erabiltzen ari garen hamabost bat lokailuak erabilia, hirurogeita bost bat pilaketa aztertu ditugu.

Horietatik hogeit bat baizik ez dira onak. Lantxo honi kanpotik ezarri zaizkion leku-murriztapenak direla eta, gera bedi beste argitalpen baterako ondorio horien berri zehatza ematea eta esan dezagun soil-soilik testu edota perpausaren gramatikaren eskutik gramatikaltasunen azalpena ematerakoan honelakoak hartu beharko direla kontuan:

a) Testu mailako funtzioei begira, hasiera batean testu jakin batekiko ezegokitasunak aurkituko ditugula pentsa liteke, baina lokailuen pilaketek ondorio ezgramatikalak eman ditzakete, ordea: euskararen baitan inoiz egingo ez liratekeen adierazpideak sor daitezke. Hau hobeto ulertzeko, gure hipotesi xumeari jarraiki lokailuei perpaus mailan ere nolabaiteko zeregina onartu eta gero hizkuntzetan ekonomi arau erraz bat antzeman daitekeela gogoratuko dugu: hitz errazetan, esangura eta funtzio bereko kideak errepikatzearen aurkako ekonomi araua. Horrela, ezgramatikaltasun hauek, lokailuen kasuan gertaturik ere, ez daude testuinguruen azpian eta, esana dugunez, euskararen baitan inoiz egingo ez liratekeen adierazpideak dira. Horrela, besarkadura txiki-koek, oso kokapen finkoa dutelarik, erabat debekaturik daukate haien arteko pilaketa.

- (29) a *Tenerifeko arrabioak beltzak ziren. Bertako muskerren paparra **behintzat aldiz**, urdina zen
 b *Tenerifeko arrabioak beltzak ziren. Bertako hondartzak **ere behintzat**, beltzak ziren

Besarkadura handikoen arteko pilaketak, aldiz, zilegi dira zenbaitetan (30a), batez ere mota honetako lokailuek aukeran dituzten kokaguneetatik bi erabiltzen direnean (30b-d); horrelakoak direla eta, esan beharra dago bestelako pilaketa guztietan baino aldakortasun handiagoa aurkitu dugula eta idaztankerak eta hizkuntz mailak ere oso kontuan hartzekoak direla.

- (30) a Santiagoko enparantza ederra da. **Gainera, halaber**, kultur ekitaldi asko egiten dira
 b Santiagoko enparantza ederra da. **Gainera**, kultur ekitaldi asko egiten dira **halaber**
 c Santiagoko enparantza ederra da. **Izan ere**, ez ginateke **osterantzean** hain maiz ibiliko
 d Joan gaitezke Munichera. **Halaber**, Kanarietara jo dezakegu **osterantzean**

Besarkadura handikoen eta txikikoen artekoak ere zilegi dira askotan (31): gogoan izan bedi perpaus mailako kokaguneari dagokionez behintzat ez dagoela inolako oztoporik.

- (31) a Isildu egingo naiz iskanbila ez areagotzeagatik. **Dena dela**, ez pentsa **behintzat** zer esanik ez daukadanik
b Esan zure ustea. Esan **halaber** azkenean egingo duzuna **ere**

b) Zer esanik ez, lokailuek perpaus mailan duten funtzio hauek onarturik ere, ezin azal daitezke ezgramatikaltasun guztiak, eta askotan esangura-harremanen arteko bateraezintasunak bide dira debekuaren iturria (32a). Hala ere, datozen lanetarako utzi behar dugu zenbaiten egokitasun edota gramatikaltasun mailak zehazki finkatzeko lana (32b).

- (32) a *Santiagoko enparantza ederra da. **Beraz**, jende gehiago dago larunbatetan **dena dela**
b Beldur naiz. Marta oso berritsua da. **Hala ere**, Iñigo **bestalde**, ez da hain hitzontzia. Beharbada ondo moldatuko dira!

c) Aurreragoko lanei begira, juntagailuen azterketak laguntza emango digu pilaketen auzia hobeto ulertzeko unean.

23. honetan ikusia dugu, bada, lokailuen arteko pilaketek oso ondorio aldakorak ematen dituztela. Pilaketen okerra testu mailara igo gabe nonbait perpaus mailatik bertatik indarra duen ekonomi arau baten eraginez gertatzen dela onar dezakegu, batez ere lokailuari testu mailako zereginaz gain perpaus mailako zeregina ere onartzen badiogu. Hala ere, esangura-harremanen arteko bateraezintasunek, oro har hizkuntzan bezala, hemen ere badute zeregina.

3. JUNTADURA

Bibliografian ikus daitekeenaren arabera, juntagailuek esangura-harremana gauzatu ez ezik, perpaus mailako funtzio bat ere betetzen dute: lokailuek ez bezala, berdintasun maila batean juntatzen dituzte bi perpaus, goragoko perpaus elkartua emateko. Lan honetan komak juntagailuen gainetik izan dezakeen eragina alde batera utziko dugularik¹⁵, 31. eta 32. sailetan hurrenez hurren juntagailuen eta lokailuen arteko pilaketak, eta juntagailuen arteko pilaketak ikusiko ditugu. 33. eta 34. sailetan, hurrenez hurren bi puntuak eta puntua aztertzeari ekingo diogu.

¹⁵ Ikus Zabala eta Odriozola (1992) eta Garzia (1998: 545).

31. Juntagailuak eta lokailuak

Badakigu lokailuek testu mailako funtzio nagusi bat dutela eta perpaus mailan ere nola edo halako funtzioa antzeman dakiekeela. Juntagailuek, berriz, oso bestelakoa den funtzio garbia dute perpaus mailan eta, beraz, juntagailuak eta lokailuak elkarrekin azal daitezke, egile guztiek nabarmendu duten bezala. Gure honetan, berrogei bat pilaketa aztertu ditugu, haietatik asko onak. Euskaltzaindiak (1994) emandako juntagailuak erabiliz, dena dela, *eta* emendiozkoa, *edo* hautakaria eta *baina* aurkaritzakoa izango ditugu eredu.

a) Askotan perpausen artean dagoen juntagailuaren orde, beste talde bateko juntagailua jar daiteke.

- (33) a Silviak ideia sendoak ditu **baina** Begoñak **aldiz**, ez daki zer egin askotan
 b Silviak ideia sendoak ditu **eta** Begoñak **aldiz**, ez daki zer egin askotan
- (34) a Alda dezakete orain arteko jarrera, **eta osterantzean**, jokaera berri bat bila dezakete
 b Alda dezakete orain arteko jarrera, **baina osterantzean**, jokaera berri bat bila dezakete
 c Alda dezakete orain arteko jarrera, **edo osterantzean**, jokaera berri bat bila dezakete

Aukera hori ez da dena dela beti gertatzen.

- (35) a Nire erlojua gelditu egin da inoiz, **baina bestela**, ez dit inolako arazorik sortarazi hogeita hamabost urteotan
 b #Nire erlojua gelditu egin da inoiz, **eta bestela**, ez dit inolako arazorik sortarazi hogeita hamabost urteotan
 b #Nire erlojua gelditu egin da inoiz, **edo bestela**, ez dit inolako arazorik sortarazi hogeita hamabost urteotan

b) Badakigu juntagailua kenduta, lokailuaren bidezko alborakuntza ego-
 kia lor daitekeela. Zer esanik ez, lokailua kenduta ere, juntagailuak bere per-
 paus mailako funtzioari eusten dio eta adierazpidea ona da.

c) Lehenengo hurbilketa honetan ikusi dugunaren arabera, dagoen lokai-
 luaren orde, nekez jar daiteke beste talde bateko lokailua.

d) Juntagailua eta lokailua esangura-talde berari dagozkio batzuetan (33a,
 34c) baina ez da beti horrela izaten (33b, 34a, 34b).

e) Esan gabe doa zenbait esangura-baterazintasun suma daitezkeela:

- (36) *Galdetu **edo dena dela** bilatu erantzuna liburu batean

f) Etorkizunean egingo diren testu mailako ikerketetan komenigarri gerta daiteke juntagailu/lokailu eta lokailu/lokailu pilaketen arteko erkaketa egitea, bereziki esanguraren ikuspegitik.

Laburbilduz, garbi dago juntagailuak eta lokailuak perpaus mailaren ikuspegitik ez dutela inolako eragozpenik elkarrekin azaltzeko.

3.2. Juntagailuen pilaketak, perpaus-gramatikaren debeku

Ohiko bibliografian adierazi bezala, perpaus elkartu bat lortzeko funtzioa duten lokailuak ezin pila daitezke, esangura-harremana edozein delarik ere.

- (37) *Joan gaitzke Munichera **edo ala** Kanarietara jo dezakegu
 (38) *Konpondu egin beharko dut erlojua **baina edo** boladan dagoen bat eros dezaket

Zeren kideak ere ez du juntagailurik onartzen.

- (39) a *Ez eman inori, **zeren edo** gabe geldituko zara (EGLU-III, 0.22b oin)
 b *Ez eman inori, **edo zeren** gabe geldituko zara (EGLU-III, 0.22b oin)

Zeren eta, bere aldetik, ihartua bide dago eta ezin esan daiteke kausa eta emendiozkoaren arteko batuketa denik. Emendiozko harreman hutsaren aukera (42) ez da bideragarria, zenbaitetan bederen.

- (40) Ematen zaigun bizia oso goiztiarra... ez izatea, ori ez litzake arritzekoa, **zeren eta** inork eztigu ezer zor (EGLU-III, 6.27)
 (41) Ematen zaigun bizia oso goiztiarra... ez izatea, ori ez litzake arritzekoa, **zeren** inork eztigu ezer zor (EGLU-III, 0.27 oin)
 (42) #Ematen zaigun bizia oso goiztiarra... ez izatea, ori ez litzake arritzekoa, **eta** inork eztigu ezer zor (EGLU-III, 0.27 oin)

Laburtuz bada, perpaus mailako funtzio garbia eta bakarra dutelarik, juntagailuak ezin pila daitezke elkarrekin.

3.3. Juntagailuak eta bi puntuak

Zenbait lokailu ez bezala, juntagailuak bateraezinak bide dira bi puntuak islatzen dituzten prosodia-ezaugarriekin.

- (43) a #Askotan egon naiz horren inguruan hausnarketak egiten: **eta** berehala emango dizut erantzuna
b #Askotan egon naiz horren inguruan hausnarketak egiten: **baina** ez dakit zer egin
c #Joan askotan bertara: **edo** ez esan lekua ezezagun egiten zaianik

3.4. Puntua, juntagailuen lagun

Bibliografian lokailu modura jokatzeko duten juntagailuen berri badugularik, gertaera horri begira berraztertu egin behar ditugu kontuak.

a) Lokailuak.

a1) Garziak (1998: 140) *ordea* delakoari buruz aditzera eman duenaren arabera, edonolako erabilera izanda ere lokailu bat ez da sekula juntagailu izango (adibidea geurea da):

- (44) a Freddie Mercuryk ahots zoragarria zuen. **Ordea**, ez dugu haren doinu berririk izango aurrerantzean
b Freddie Mercuryk ahots zoragarria zuen. Ez dugu **ordea** haren doinu berririk izango aurrerantzean

Egile honen esanetan, (44) bezalakoetan garbi suma daiteke lokailuei dagozkien soinu-ezaugarriak daudela. Lan honetan aldarrikatu dugunari jarraituz, idazle hau guk geuk arruntzat jo ditugun beheranzko doinua eta isilune luzeaz ari dela pentsatu behar dugu. Edonola, gure ikuspegiarekin bat eginez ezaugarri horiek puntuazioak ondo islatu beharko lituzkeela dio eta bere adibideetan ere, puntua ageri da.

a2) Esana dugunez, lokailuek, morfologi jatorri gardena dute eta horretan oinarriturik, hasiera batean perpaus mailako funtzio bat zutela pentsa daiteke, eta zenbaitetan gaur egun ere badute funtzio hori. Lokailu modura, *ordea*, testu mailako funtzio bat hartzen dute, horrelakoetan perpaus mailan ere nola edo halako funtzioa betetzen dutelarik.

a3) Lokailuen arteko pilaketak perpaus mailako funtzio desberdinak dituzten artean bakarrik gerta daitezke oro har.

a4) Juntagailuekin pilatzerakoan lokailuak bide dira nagusi esanguragarriaren ikuspegitik. Hitz-hurrenkerari dagokionez, bestalde, juntagailuen atzetik azaltzen dira, eta oro har kokapen bat baino gehiago har dezakete perpaus zehar.

a4) Bibliografian ikus daitekeenaren arabera, testua antolatzeke lana egiten duten osagaiak hitz egin beharko genuke zehazkiago. Hauen artean leudeke Euskaltzaindiak *lokailu* izenpean aztertu dituenak eta guk geuk hemen hizpide izan ditugunak. Gauza bera esan daiteke Larringanek (1995) testu-antolatzaile izenaren pean aztertu dituen guztiez. Edonola, testu mailako funtzio bat duten osagaiak ditugu eskuen artean, eta ez gramatika-kategoria bakar bati dagozkion batzuk.

b) Juntagailuak.

b1) Juntagailuak perpaus mailako funtzioa du berez: berdintasunezko maila batean lotuz goragoko perpaus elkartu bat ematen dute. Areago, juntadura esango diogun funtzio hau ez du betetzen juntagailu izena hartu ez duen inolako kideak ere.

b2) Hala ere, juntagailuek puntu baten atzean azaldu ohi dira eta hizkuntz mailen arabera, nahiko maiz azaldu ere (Euskaltzaindiak 1994, Makazaga 1996, Garziak 1998). Lokailu gisa joka dezakeelakoa, gure ustez, ukaezina da *baina* horren jokaera bereziaren esparruan ez ezik (45), *edo* (46) eta *eta* (47) juntagailuenean ere.

- (45) a Hor dagoen mutila ezagutzen diat.
Nor **baina**, betaurrekoduna ala bestea?
- b Bigarren mailako egitura mantendu du molekulak. Hirugarren mailakoa **baina**, galdua du
- (46) a Komeria hura guztia zela eta, nazka-nazka eginda zegoen. **Eta** ez pentsa alde z aurretik non sartzen ari zen jakin gabe sartu zenik!
- b Abes ezazu apur batez gozoago. **Edo** joan zaitetz apur bat urrunago
- c Saiatzen naiz horrelakoez ez kezkatzen. **Baina** ez dut inoiz lortzen¹⁶
- (47) a ametsetan dibinoki adbertiturik retira zedin Galileako bazterretarat. **Eta** hara etorririk habitatu zen Nazareth deitzen den hirian¹⁷
- b bide onean jartzen dira... **Edo** behintzat badute bere baithan barrena atsekabe bat¹⁸
- c ezbide haundia dela au, ta bizitza txaxurkeritan ondatzea. **Baina**, besteak beste, honetarako jaio nauk ni¹⁹

¹⁶ Isilunc luzc hori zenbaitetan eten-puntuen bidez isla daiteke agian.

¹⁷ Leizarraga, J., (1571). *Jesus Christ gure jaunaren Testamentu berri*: S. Matheu, 2,23. Lur. Donostia 1979.

¹⁸ Axular, P. (1643). *Gero*: 70 atala. Jakin. Aranzazu, 1976. (54) eta (55) adibideak ere, bertokoak dira.

¹⁹ Txillardeggi, (1957). *Leturiaren egunkari ezkutua*: Udazkena, 04. Leopoldo Zugazaga editor. Durango 1977

b3) Puntu-ezaugarrien atzean doazen kide hauek, bai eta *zeren* delakoak ere, ondo onar dezakete lokailu bat.

- (48) a Komeria hura guztia zela nazka-nazka eginda zegoen. **Eta hala ere**, ez pentsa aldez aurretik non sartzen ari zen jakin gabe sartu zenik!
- b Abes ezazu apur batez gozoago. **Edo bestela**, joan zaitez apur bat urrunago
- c Saiatzen naiz horrelakoez ez kezkatzen. **Baina hala ere**, ez dut inoiz lortzen
- d Ez eman inori. **Zeren bestela** gabe geldituko zara (EGLU-III, 022b oin)

Alde horretatik, murriztapenak esangurari bakarrik dagozkiola dirudi, juntagailuak testu mailako funtzioa betetzen duenean bezala.

b4) Puntu-ezaugarrien atzeko juntagailu-pilaketa, komaren atzekoa bezain okerra da; *zeren* delakoaren kasurako ere hala da.

- (49) a *Miren ez zen biltzarrera etorri. **Baina baizik** txostena bidali zuen
- b *Joan gaitezke Europako erdialdera. **Eta edo** Mediterranioko ekialdera jo dezakegu
- c *Joan gaitezke Europako erdialdera. **Edo ala** Mediterranioko ekialdera jo dezakegu
- d *Konpondu egin beharko dut erlojua. **Baina edo** boladan dagoen bat eros dezaket
- e *Ez eman inori. **Zeren edo** gabe geldituko zara (EGLU-III, 022b oin.)

Gogora bedi, dena dela, lokailuen arteko pilaketek bereziki kokagune bera hartzen dutenen artean eragozpen handiak dituztela.

b5) Horrela, bada, gramatika-kategoria bat dugu nonbait juntagailuen baitan: perpaus mailako funtzio sendo bat, beraien banaketan testu mailako funtzioa ere betetzeko aukera dutela ikus daitekeelarik.²⁰

c) Bil ditzagun orain Euskaltzaindiak lokailutzat hartu du *zeren* delakoak azaltzen dituen ezaugarriak.

c1) Puntuaren zein komaren atzean azal daiteke, juntagailu batzuk bezala. Areago, ondo onartzen du lokailuren bat, beti ere juntagailuen joskerari jarraiki.

²⁰ Sintaxi-banaketa gramatika-kategoriak finkatzeko irizpide gisa erabiltzeaz ikus bedi Bosqueren (1989) lan paregabea.

c2) Morfologia gardena du (*zer* + genitiboa), lokailuek izan ohi duten bezala.

c3) Euskaltzaindiak esan duenez (1990, 1994), juntagailuek perpaus osoak koordinatzeaz gain, perpaus zati batzuk ere koordina ditzakete.

- (50) a Leloa **eta** gaiztoa da
 b Leloa **edo** geldoa da
 c Leloa **baina** trebea da

Euskaltzaindiaren lokailuek (ez testu-antolatzaile guztiek, ordea) perpausak baizik ez dituzte esangura-harreman baten bidez lotzen.

- (51) a *Leloa, **halaber** gaiztoa da
 b *Leloa, **osterantzean** geldoa da
 c *Leloa, **hala ere** trebea da

Zeren honek perpausak lotzen ditu.

- (52) *Gaiztoa **zeren** leloa da

c3) Puntuari dagozkion prosodia-ezaugarrien atzetik ere ager daiteke.

c4) *Zeren* egokiro molda daiteke lokailuekin batera baina beti ere lokailuen aurrean. Bestalde, ez du juntagailurik onartzen.

c4) Bukatzeko, *zeren* hori *bait-* aurrizkia daraman aditzekin batera azal daiteke, baina hori, bai koma-ezaugarrien atzetik (53) bai puntuaren atzetik ere (54). Areago, *zeren eta bait-* puntu-ezaugarrien atzetik azal daiteke, geure klasikoen puntuazio-sisteman behintzat (55).

- (53) Isildu egin naiz, **zeren (eta)** ez **baitut** piperrik ere ulertu
 (54) Gutitan orraztatzen denak, lehenbiziko orratza aldian, orrazea nekez iragaiten du. **Zeren** ileak nahasiak eta izurtuak **baitaude**
 (55) Baina alferrik. **Zeren** nola baituen libertatea, eta heure burua eta heure eskuko, hala egin dun hire plazera

Ildo horretatik, esan beharrekoa da juntagailuak ez bezala lokailuak menderagailuekin batera azal bide daitezkeela (56). *Bait-* horrekin batera ere eskuragarriak direla dirudi (57) baina bestalde, *bait-* hori hain menderagailu garbia ez dela ere onartu behar da: *Bait-* daraman adizkia duen perpaus bat behinik behin, gainontzeko kiderik gabe ere azal daiteke puntu baten atzetik (58).²¹

²¹ Ikus Odriozolaren (1998) lanean argi eta garbi ihartze prozesua jaso behar izan duen *es que* gaztelaniazkoaz esandakoa. Edonola, (i)ko *es que*, (58)ko *bait-* soilaren parekoa izango litzateke hainbat ikuspegitatik. Era berean, interesgarri gerta liteke lan horretan *eta* enkli-

- (56) a Ez diot ezer esango, ez dudalako **izan ere** konponbiderik aurkitu
 b Tramankulu horretan zehar begiratu behar diozu eklipseari, **bestela** mina hartuko duzulako
- (57) Ez diot ezer esango. **Izan ere**, ez baitut konponbiderik aurkitu
- (58) Harri eta zur gelditu ninduan. Ez **bainian** piperrik ere ulertu, aizak!

Zeren honek, bada, eskuragarri ditugun irizpideei begira juntagailuek bezala jokatzten du gehienetan, baina ez da erabat baztertzekoa lokailu funtzioa (ere) izan lezakeelako ideia.

Aurreko kontuak laburbilduz, bada, juntagailuek perpaus mailako funtzio bat dute berez, bi perpaus elkartzen baitituzte goragoko perpaus bat emateko; hala ere, zenbaitetan, aurrean daramatzaten prosodia-ezaugarriak direla bide, lokailu modura joka dezakete; horrelakoetan, bada, testu mailako funtzioa dute. Hau guztia, dena dela, gramatika-kategoria bati dagokion banaketa ohiko bat besterik ez litzateke izango. Bestalde, oro har esangura baizik gauzatzen ez duten lokailuekiko pilaketetarako murriztapenik ez dago.

d) Euskaltzaindiaren iritziz, esangura-harreman garbia suma daitekeen alborakuntza lokailugabea, komari dagozkion prosodia-ezaugarrien multzoa \emptyset juntagailutzat har liteke. Guk geuk bakarrik esango dugu pilaketen ikuspegitik koma-ezaugarriek lokailuek bezala jokatzten dutela: juntagailuak onartzen dituzte, baina lokailuak onartzeko unean, ordea, zenbait murriztapen dituzte. Izan ere, koma baten bidez islatzen diren prosodia-ezaugarri hauetan oinarriturik zenbait esangura-harreman (eta zenbait hizkuntz mailatan) soilik dira bideragarriak: emendioa, aurkaritza, kausa eta argudioa. Lokailuen bidez, aurreko esanguraz gain, hautakari-harremanak eta ondorioa adieraz daitezke. Juntagailuek, bere aldetik, emendioa, hautakari-harremanak eta aurkaritza itxura ditzakete.

e) Euskaltzaindiak (1990, 1994) ez du bi puntuen auzia aztertu baina, esana dugunez, bestelako hizkuntzetan ikusia da dagoeneko zenbait esangura-harreman adierazten dituztela. Euskararen baitan ari garelarik, bi puntuak gai dira kausa, ondorioa, argudioa, ondorioztapena eta aurkaritza adierazteko. Bestalde, ondo onartzen dituzte aurkaritza, argudio, kausa, ondorio eta ondo-

tikoari buruz adierazi zena (ia), beti erabat menderagailua izango ez litzatekeen erabilera bat duen *que* gaztelaniazkoari buruzkoarekin batera (ib).

- (i) a Ondo pentsatu, kontua larria da eta
 b Piénsalo bien, **que** es muy importante

rioztapenezko lokailuak ere, baina nekez edonolako juntagailurik. Lokailu eta juntagailuaren arteko pilaketa ere nahiko okerra da bi puntuen atzetik, baina kontuan hartu behar da lokailuek ez dutela juntagailuen aurretik azaltzeko aukerarik.

4. LABURBILPENA

Lan honetan, uztarturik erabili ditugu testuaren eta perpausaren gramatiken ikuspegiak, elkarren aldamenean dauden perpausen arteko harreman mota desberdinen azterketan aurrerako urrats bat emateko asmoan.

Aztergai hartu ditugun ezaugarri nagusietako bat testu edo perpaus mailako funtzioa betetzen duten kideen pilaketei dagokie. Kide hauetako batzuek, Euskaltzaindiak *lokailu* deitu dituenek, alegia, testu mailako funtzioa baizik betetzen ez dutela ikus daiteke bibliografian. Zehazkiago, testu mailako funtzio bat betetzen duten osagaiez osaturiko talde anizkoitzari emandako funtzio-izena izango litzateke lokailu edo, zabalago, testu-antolatzaile delako termino hori. Hala ere, lokailuen arteko pilaketa batzuek dituzten okerrak testu mailan aurki daitezkeen ezegokitasunak izan gabe, perpaus mailako ezgramatikaltasunak dira nonbait. Alegia, kasu horietako adierazpide okerrak ez dira testu jakin baten arabekoak eta euskaratik kanpo daude besterik gabe. Honi nolabaiteko azalpena aurkitzeko, lan honetan azpimarratu nahi izan dugu lokailuek perpaus mailan ere gutxienez bi funtzio mota betetzen dituztela: gure terminologian bat besarkadura handikoa eta bestea besarkadura txiki-koa. Izan ere, euskararen gramatikan zilegi diren pilaketak oro har perpaus mailako funtzio desberdinak dituzten lokailuenak dira. Bestetik, Euskaltzaindiak *juntagailu* deitu dituenek, perpaus mailako funtzioa betetzen dute, bi perpaus juntatzen baitituzte goragoko perpaus elkartu bat emateko. Horrela, juntagailuen arteko pilaketek debeku hertsia dute perpausaren gramatikan. Juntagailuen eta lokailuen arteko pilaketak zilegi dira oro har. Honi guztiari azalpen bat eman ahal izateko, lan honetan ikusi izan dugu horrelako pilaketen juntagailuek eta lokailuek hurrenez hurren perpaus juntadura eta esangura-harremana gauzatzen bide dutela. Hala ere, bi taldeen arteko esangura-baterazintasun batzuk suma daitezke zenbaitetan, hau da, juntagailuek badute esangura-balio (arinago) bat horrelako pilaketetan. Bestalde, *lokailu* deitu izan direnek ez dute juntagailuen perpaus mailako funtzioa betetzetik, baina lan honetan aldarrikatu dugunaren arabera juntagailu delako gramatika-kategoriaren barruan badago lokailuen testu mailako funtzioa betetzeko aukera.

Bigarren ezaugarria, prosodia mailakoa da: bi perpausen arteko isilune laburragoa eta lehenengo perpausaren goranzko doinua, batetik, eta, bestetik, isilune luzeagoa eta beheranzko doinua. Ezaugarri multzo bi horiek, idatzizko mailan egoki ala oker islatzen direla ere (koma eta puntuaren bidez, oro har), gai dira lokailurik gabe lokailuei egotzi ohi zaizkien esangura-harremantako batzuk adierazteko. Lehenengoak askoz murriztapen handiagoak ditu eta lokailu bat dagoenean ere, hautaketa bigarren sortaren alde egiten da oro har. Edonola, komaren bidez islatu ohi diren ezaugarri horiek gai dira bestelako laguntzarik gabe aurkaritza, argudioa, kausa eta emendio mota batzuk azaltzeko, baina beste emendio mota bat, ondorioztapena, ondorioa, hautakari-harremanak eta kontzesioa ez dira eskuragarri. Puntuaren bidez islatzen ohi diren ezaugarriek, aldiz, komaren esangurez gain, argudioa eta kausa ere iradoki dezakete era garbian. Lan honetan, gainera, hain aztertua ez den prosodia-ezaugarrien hirugarren multzo bat aztertu dugu: aipaturiko lehenengo multzoak baino isilune luzeagoa eta bigarren multzoak baino goragoko doinua (bi puntuak oro har). Ezaugarri hauek oso esangura-harreman zehatzak adierazten dituzte: oro har argudio/ondorioztapen eta kausa/ondorio ardatzekoak; gainera, ezaugarri multzo honek lokailuekin eta juntagailuekin ematen dituen pilaketa berezien berri eman dugu: lokailuak bezala, ezin jar daitezke juntagailuen aurrean, eta ager daitezke, ordea, esangura egokiko lokailuekin batera.

Laburbilduz, bada, erabat ohikoak ez diren ezaugarri batzuk aztertu ditugu, elkarren aldamenen dauden perpausen arteko harremanen esparru zabalaren azterketan aurrera egiteko eta, bide batez, testuaren eta perpausaren gramatikak elkarrengana hurbiltzeko asmoz.

BIBLIOGRAFIA

ALARCOS LLORACH, Emilio (1994), *Gramática de la Lengua Española*, Espasa Calpe. Madril, 1995.

BOSQUE, Ignacio (1989), *Las categorías gramaticales*. Editorial Síntesis. Madril, 1998.

EUSKALTZAINDIA (1990), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak (III)*. Bilbo. —(1994). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak (IV)*). Bilbo.

Garzia Garmendia, Juan (1997), *Joskera lantegi*. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Gasteiz.

GILI GAYA, Samuel (1961), *Curso superior de sintaxis española*, Bibliograf. Bartzelona, 1985.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (1973), *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española* Espasa Calpe. Madril, 1983.

LARRINGAN, Luis Maria (1995), *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboa eta argudiapenezkoa*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

MAKAZAGA, Jesus Mari (1996), "Perpausen arteko testu-mailako lotura: testu zientifikoak sortzen". *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa* liburuen barruan. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

ODRIOZOLA, Juan Carlos (1998), "La puntuación y la entonación como desambiguadores en las estructuras limítrofes entre la yuxtaposición, la coordinación y la subordinación" (inprentan). *I Simposio Internacional de Análisis del Discurso*. Complutense Unibertsitatea. Madril.

—(1999), "Eginez, eginik ala eginik?". *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan* liburuan (inprentan). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

ZABALA, Igone eta ODRIOZOLA, Juan Carlos (1992), *Hitz-ordena, galdegaia eta komen erabilera*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

ZABALA, Igone (1996a), "Testu-lotura: lotura tematikoa eta erreferentzia sarea testu teknikoetan". *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa* liburuen barruan. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

—(1996b), "Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketen antolatzaileak: *hau da, hain zuzen (ere), adibidez, batez ere...*". *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa* liburuan. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.